

Ama kirol kazetaria,  
semea txirrindularia,  
bizikletari lotuta bizi  
dira Arritxu Iribar eta  
Aitor Olaziregi.

## AMA-SEMEA GURPIL BEREAN



Kalitatezko  
produktuak

Gipuzkoako  
Okelaren  
Ziurtagiria:  
GI-OKELA

ZUMAIA  
Basadi auzategia, 4.  
Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ  
Salegi kalea, 14.  
Tel./Faxa: 943 890 215

# Juanjo Larrañaga harategia



## Casa BASUSTA

CASA  
BASUSTA  
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
ZeramiKa-lanak eta zimezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 882611



# BALEIKE 233

A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustín Zubimendi eta  
Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietza, Izaskun Urbietza eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legia gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**TOKIKOM**

10  
baleike +

## ITZULTZEN EZ DIREN ITSASONTZIAK

5  
hitz-tantak  
GURE ESKU DAGO

8  
baleike  
20. URTEURRENEKO  
EKITALDIAK

21  
erreportajea  
BIZITZA PEDALKADAZ  
PEDALKADA

30  
bertso xorta  
JOSU MANZISIDOR

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiko Udala





**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Diseinu zerbitzuak  
tel.: 943 14 31 22  
Kopiak eta materiala  
tel./Faxa: 943 14 31 20  
www.a3zumala.com  
a3@a3zumala.com

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak



**LIBRURU DENDA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

Egin zaitez **BALEIKE**ko bazkide



**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

Egin zaitez **BALEIKE**ko bazkide




**ALGORRI**TABERNA

ERREINA CALLA 2 - ZUMAIA



Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943.861.157 anaetxekozapaki@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA



*D'Ana*

Kantauri plaza, 6, behea tel. 943 117 406

**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5  
Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 962 532 Tel.: 943 861 631

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Bereizketa sistemak
- Giretzeo
- Ilargintza
- Energi berriztzatzaileak
- Erengintzaren energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

www.argisun.com  
info@argisun.com



**OGI-EDER**



**ARRUTI**  
Saltasor Etxeko 2/8  
Zumala 943016429



**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25  
20740 Amra tel./faxa 943 148 300  
bakun@euzkalnet.net



**Basodi albaitaritzia**

Ribaitario Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310  
www.basodi.net

Golaz: 11-13 / Arribak: 15-19.30 / Arribekin golaz eta larrialdian 24/24  
Lantekareko: 605 728 787 Etxa etako zerbitzua



**BASUSTA**  
erretegia · asador

José Blázquez

Pefiña Etxezorreta, 25 Tel.: 943 86 20 71  
20750 Zumala (Gipuzkoa) 943 86 04 38  
asadorbasusta@hotmail.com



**Braky's**  
Okindegia Katedegia

Iraga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289

“Herri bezala definitzeko  
beharra sentitzen duen  
edonork du **erabakitzeko  
eskubidea**”



TESTUA: IZASKUN URBIETA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Ekainaren 8an, Durango eta Iruñea giza kate luze batek lotuko ditu. 123 kilometro eta 50.000 lagun. Guztiek mezu berdina helaraziko dute: herriak duen erabakitzeko eskubidearen aldarrikapena. Zumaiak ere badu bere kilometroa, 47.a, hain zuzen ere, eta aspaldi lortuta dituzte kilometroa osatzeko beharrezkoak diren gutxieneko 400 pertsonaren izenak. Gure Esku Dago egitasmoko hainbat partaiderekin hitz egin du BALEIKEK.

**Nondik dator Gure Esku Dago ekimena?****Mendigaña Gorostiaga:**

Adar ezberdinetatik dator. Alde batetik, Katalunian eman den prozesua dago; han, helmuga giza katea izan zen. Hemen ere horrelako prozesu bat eman nahi da, eta, horretarako, giza katea hartu da abiapuntutzat. Ezberdinen arteko bilgune bat elkartzeko sortu den giro berezi hau giza kate baten bidez erakustea da helburua

Beste adarra, Jon Maiaren *Gazta zati bat* dokumentala da. Giro berezi batean sortu zen; ekimen batean du oinarria, ezberdinen elkartze batean. Gainera, horrek ere bidea egin zuen han prozesu bat eraikitzeko.

**Joanito Dorronsoro:** Nik uste, hondoan, egoera politikoa ere badela. Politikariak alde batera utzi, eta herriak erantzun beharraren sentazioa dago. Euskal Herrian oso momentu berezian gaude, eta hau da zerbait egiteko momentua. Krisi ekonomikoan gaude,

Espainiaren jokabide eta egoera txarra, ezker abertzaleak eman duen aldaketa... Dena alde dago herria mugitzeko, eta olatu hau aprobetxatu egin behar da.

**Mendigaña:** Ez dela aprobetxatzen? Niri pena handia emango dit, baina honek erakutsiko du herriak duen heldutasun maila.

**Herritik sortutako ekimen bat da, politika alde batera utzita.**

**Mendigaña:** Politikan sartzen garen momentutik krispazioak daude, eta bakoitza bere aldera hasten da tiratzen. Eta kasu honetan, denak alde berdineratiratzeari nahi da, hau da, erabakitze eskubidearen alde egitea. Horregatik, tirabirarik ez egoteko, herriak hitza hartzea nahi izan da. Horretaz gain, badago gogo bat elkartzeko. Traba asko izan ditugu Euskal Herrian, eta hainbat arazorengatik, elkartzeko zailtasunak izan dira. Ekimen hau elkartzeko aukera ematen digun erronka bat da.

**Eskuaren irudiak eta giza katea osatzeak esanahi berezia dauka. Pentsaera, ideia, ideologia... ezberdinetako pertsonak batzea.**

**Mendigaña:** Bai, eta, era berean, ezer gabe, biluztasun horretan, gu garenarekin. Herriak eskua emateak sinbolismo handia dauka elkartze horretan, lanerako grinan, denak batzean...

**Joanito:** Eskuak bi kontzeptu hartzen ditu kasu honetan. Bat *gure esku dago* da; alegia, gurea da hau, gure eskubidea da eta gure eskuetan dago egikaritzea. Beste zentzua, aldiz, elkarri eskua emanda bide bat egitea da.

**Giza katearena aitzakia bat da?**

**Mendigaña:** Metodologia bat da, zerbaiti heltzeko modu bat da. Prozesu baten hasiera, ekintza honetatik ekiteko bidea da giza katea. Abiapuntu bat, eta oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Jendea elkartzeko, eta jendeari ilusio bat sortzeko momentu bat ematea da helburua.

**Arritxu Manterola:** Honekin erakutsi nahi da, politikatik kanpo, herriak ere baduela hitza eta zer esana. Azken finean, alderdi politikoak hauteskunderi begira, emaitza batzuei begira...

egoten dira, eta askotan beraien helburuak ezerezean geratzen dira. Horregatik, herritarren lana ere behar da. Gainera, erabakitze eskubidea oinarriko eskubide bat da, ez alderdi baten programa. Beraz, errespetatu egin behar da.

**Mendigaña:** Honekin ere alderdiei zirikatzeari lortu nahi da. Gure politikariei esatea zer nahi dugun eta zer eskatzen dugun, eta horren arabera, beraiek ere mugitu daitezuten. Ondoren, beharbada, etorriko dira lisakarrak. Izan ere, bakoitzak herri bat izateko modu bat ulertzen du. Baina orain, momentuz, zera da eskatzen duguna: utziko diguzu esaten zer izan nahi dugun?

**Ekimenak hiru oinarri ditu: nazioa gara, erabakitze eskubidea daukagu eta etorkizuna herri honetako herritarren esku dago.**

**Mendigaña:** Lehenengo biak argiak dira, eta hirugarrenak garrantzia dauka ez delako erabaki baten alde egiten, baizik eta erabakitze eskubidearen alde. Ez dugu Euskal Herri konkretu bat eskatzen, baizik eta Euskal Herri bat osatzeko erabakitze eskubidea. Guk eskatzen dugu lehen-dabizi herriari galdetzea zer nahi duen, eta herriak erabakitzen duena aurrera eramatea.

**Joanito:** Demokraziaren oinarri-oinarria da herritarrek erabakitzea zer nahi duten.

**Zumaiari esleitutako kilometro zatia 47.a da, Ezkio-Itsason. Kilometro bakoitza betetzeko gutxienez 400 pertsona eskatzen dira. Bete duzue erronka?**

**Mendigaña:** Bai, bete dugu. Gure kilometro zatia Getariarekin, Oikiarekin



“Herriak eskua emateak sinbolismo handia dauka lanerako grinan, denak batzean...”



eta Aizarnazabalekin osatzea pentsatu genuen, eta dagoeneko, 400 pertsonaren muga pasatuta daukagu. Baina jende kopurua handitzeko esperantza dugu, eta lan horretan jarraituko dugu hemendik ekainaren 8a arte.

### **Zein prozesu eraman duzue herrian?**

**Axun Elduaian:** Gure lehenengo bilera abenduaren 27an egin genuen. Hortik aurrera, 8-10 bat lagun elkartu gara astero, hausnarketak egin eta ekintzak antolatzen. Aurrenekoa, Moilaberriko zubiaren ondoan atera zen argazki erraldoia izan zen. Horretarako, herriko elkartei idatzi bat bidali genien etortzera animatzeko. Aniztasuna bilatu genuen, eta kopuru handia etorri zen. Bestalde, aste-buruoro egon gara metroak saltzen, kamisetak, informazioa banatzen... Santelmoetan ere kantu jira egin genuen, eta giza kate bat ere eratu zen. Eta azken ekintza

modura, idatzi bat prestatu eta etxe guztietara bidali da jendea motibatzen.

### **Parte hartzaileekin sare bat osatu nahi da, ezta?**

**Arritxu:** Bai, izan ere, giza katearekin, ez da amaitu nahi egiten ari garen prozesu hau. Horretarako, datuak jasotzen ari gara, ekimen honek ibilbide bat izan dezan.

**Mendigaña:** Herri mailan etorkizunean egingo diren ekimen, bilgune eta ekintzetan parte hartzeko datuak izatea garrantzitsua da. Horrela badakizulako zein herritarrek egiten duen egitasmo honekin bat.

### **Oztopoak aurkitu dituzue?**

**Mendigaña:** Hemen, Zumaian, ez dugu sumatu.

**Joanito:** Arazorik ez dugu izan, baina, beharbada, bete-beteko erantzunik ere ez. Erantzun garbirik ez, baina kontrakorik ere ez.

**Mendigaña:** Emozio handirik ere ez, baina, beno,

“Politikatik kanpo, herriak ere badu hitza eta zer esana”

horretarako ere ibilbide bat behar da, elkar ezagutu, mamu asko uxatu... Horretan gabilitza. Hala ere, gerturatzea ere egon da; bai adin eta ideologia ezberdinetatik, baita politikatik urrun dauden pertsonen aldetik ere.

### **Arrakastatsua izatea espero da. Baina nolako jarraipena izango du?**

**Mendigaña:** Ekimen honen ondoren, hausnarketarako momentua hartuko da taldean bertan. Hau da, herri bakoitzean, eta antolaketa nagusian ere bai, jakina. Bidea badakigu zein den,

hau guztia gizarteratzea, eta honek eragin bat izatea politikoki. Norabide horretan, beste pauso batzuk emango dira. Gure kasuan, Zumaian, egin ez ditugun hausnarketa, hitzaldi... egiteko unea izango da.

**Joanito:** Herrietan sortu diren sare txikiak jarraipena izango dutela pentsatzen dut. Hor dugu Kataluniako kasua. Han sare ikaragarri bat dago, eta alderdi politikoetako jendea mugiarazten dute. Hemen ere gauza bera egiteko intentzioa egongo dela uste dut. Gizarte oso baten sarea egitea, politikatik kanpo, herria mugituko duena.

### **Katalanen inbidiarik izan behar dugu?**

**Mendigaña:** Ikusiko dugu. Momentuz bai.

**Arritxu:** Ziurrenik ez dugu bide berdina egingo, baina ikusiko dugu ekainaren 8tik aurrera zer egin.

**Joanito:** Han dagoen indarrak inbidia ematen du, jakina. ■

# 20. URTEURREN

1994ko ekainean argitaratu zen Baleike aldizkariaren lehen zenbakia. Hogei urte joan dira dagoeneko, eta urteurrena zuekin ospatu nahi dugu. Horretarako hiru ekitaldi prestatu ditugu ekainerako, eta egun osoko jai eguna uztailaren 5eko Baleike Egunean.

Aldizkariaren 20. urteurrena eta baleike.com webgunearen hamargarrena ospatuko ditugu ekainean eta uztailan. Eta zuekin ospatu nahi ditugu, zumaiarrok, Zumaietan eta Zumaiarentzat sortu eta garatutako komunikazio proiektua delako Baleike. Ospakizunekin batera, aurten berrikuntzak izango dira (bazkideentzako deskontu txartela, webgune berriak tresna gehiagorekin, gida komertzial digitala...) baina horiek denak uztailerako prestatzen ari garen zenbaki berezian azalduko dizkizuegu.

Hiru ekitaldi prestatu ditugu ekainerako: Joseba Tapiaren kontzertua ekainaren 13an, Irrien Lagunak ikuskizuna ekainaren 21ean (Urola Kostako Hitzarekin batera), eta Mursegoren kontzertua ekainaren 27an. Tapia eta Mursegoren kontzertuetarako Baleike Kultur Elkarteak bazkideek bi sarrera eskuratu ahal izango dituzue baten prezioan (sarrerak turismo bulegoan jarriko dira salgai alde aurretik, bost euroan).

## Uztailaren 5ean, Baleike Eguna

Egun osoko jai eguna ari gara prestatzen uztailaren 5erako, herriko talde eta artistekin elkarlanean. Zumaiak kultura arloan daukan gaitasuna eta aberastasuna kalera atera nahi dugu, eta horretarako kalejira berezi bat ari gara antolatzen. Musika taldeak, bertsolariak, dantzariak, aktoreak... Denetarik ikusi eta gozatu ahal izango da herriko kaleetan zehar egingo dugun ibilbidean. Herri bazkaria ere egingo dugu, eta beste hamaika sorpresa. Gorriz markatu egutegian uztailaren 5a, handia izango da eta!



**JOSEBA TAPIA**

**JOSEBA TAPIA**

Ekainak 13  
22:30ean, Aita Marin





# ITZULTZEN EZ DIREN ITSASONTZIAK

TESTUA: GONTZAL TORRE ETA  
IMANOL AZKUE IBARBIA

Zumaiarrontzat ohikoa da itsasontziak egiten ikustea: langileak atzera-aurrera, txapa soinua eta mailu kolpea, garabia batetik bestera mugitzen karroan, sirena goizeko zortzietan langileak lanera deitzen... Ohituta gaude itsasontziak nola eraikitzen dituzten ikusten, ezerezetik eta pixkanaka, mekano erraldoi bat balitz bezala, piezaz pieza, eta halako batean, ilargi betearekin edo berriarekin, itsasgorarekin, uretan ikusten dugu ordu askotako eta jende askoren lana. Hor egoten

da itsasontzia lotuta, Moilan edo Sarauneko zabalgunean, osatzen, prestatzen, eta halako batean, han joaten da ibaian behera, itsasoan gora, poliki-poliki. Horrela ikusi ditugu joaten itsasontzi asko, askotxo: uralarrak, sotak, grampianak... Egin, egiten dira itsasontziak gurean, eta joan, joaten dira mundu zabalera, baina gero non ibiltzen dira? Non daude gaur egun? Zer banderapean? Nola izena dute? Bizi al dira oroitzenenetan besterik ez dauzkagun itsasontziak?



## Ontzigtza Zumaian

Zumaia erreferentzietako bat da gaur egun ontzigtzan, baina ontziolak aspaldi-aspalditik izan dira gure herrian; XV-XVII. mendeen artean oso jarduera garrantzitsua izan zen; gero, krisialdia etorri zen eta ontzigtza ez zen suspertu XX. mendearen hasiera arte, porlanaren industriari eraginda. Duela mende bat inguru, Zumaian hainbat ontziola zeuden, itsasontziak eraikitzeko leku iraunkorrekin: Pedro Alberdiren, Astilleros del Urola, Arrizabalaga eta Olasagasti, Querejetarena... Horietako batzuk Arrangoleta/Parolaldean zeuden, eta mendearen hasieran egurrezko itsasontziak egiten zituzten. Azken urteotan, ordea, ontzigtzaren erreferentzia nagusia Balenciaga ontziola da. Enpresa 1919an sortu zen eta altzairuzko lehen itsasontzia 1929an uretaratu zuten, *Julito* izenekoa. Harrezkero, Balenciagak dozenaka itsasontzi egin ditu, mota askotakoak: zamaontziak, arrantza ontziak, atoiontziak... Horietako batzuk ekarriko ditugu hona.



## Zamaontziak

Eskura dauzkagun datuen arabera, Balenciagan egindako lehen zamaontzia *Lasbercia* izan zen. 1953an egin zuten, Epifanio Población Larrinaga Pasai San Pedroko armadorearentzat. Itsasontzi txikia zen (38 metro luze), eta armadorez aldatu ondoren, 1962an Espainiako Aireko Ministerioari saldu zioten. Afrikako mendebaldeko kostaldean hondoa jo eta bertan gelditu zen 1978an. Azken zamaontzia, berriz, *Goiri* izenekoa da (1983an), Marítima del Gran Bilbao enpresa-ontziak eskatuta. Bi itsasontzi horien artean, 30 urtean, 25 zamaontzi baino gehiago egin zituen Balenciagak.

Bereziki azpimarratzekoak dira bi bezero, bi ontzi enpresa: Naviera Uralar SA eta Naviera Sota Cantabrico SA. Izan ere, biek ere itsasontzi guztiak Balenciagan egin zituzten. Bi enpresa horien artean 18 ale atera zituzten Zumaiako ontziolatik, 13 Uralarrek eta 5 Sotak.

Balenciagan egin diren zamaontzi handienak hauek izan dira: *Uralar Sexto* (91,32 m, 1983), *Uralar Séptimo* (91,32 m, 1984), *Goiri* (91,29 m, 1983) eta *Uralar Quinto* (91,29 m, 1982).

Balenciagan egindako beste zamaontzi batzuk ere hondoratu dira:

- *Polensa Tercero* (1962an eraikia). Mauritaniako Nouadhibouko portuan su hartu zuen eta guztiz galdu zen, 1981ean.
- *Polensa Quinto* (1964an eraikia). Tabako kontrabandoarekin atzemanda, Santanderreko badian utzita hondoratu zen 1990ean.
- *Polensa Cuarto* (1965ean eraikia). 1981ean Siracusatik (Sizilia, Italia) 110 miliara hondoratu zen Itsaso Jonikoan, makina-gela aldean kroskoan egindako zulo baten ondorioz.
- *Urmaya* (1968an eraikia). Motorra geldituta, hondoa jo zuen Coruñaeko Illa de Sálvoran, 1984ko azaroaren 2an.
- *Urlea* (1970ean eraikia). Fisterrako lurmuturretik 7 miliara hondoratu egin zen, 1984ko martxoaren 28an, zeraman egur-zama mugitu eta gero. Eskifaia 7 kide *Loredo* itsasontziak jaso zituen, baina beste bat hil egin zen.
- *Noreña* (1970ean eraikia). 1985eko urriaren 10ean denboraleak harrapatu eta hondoratu egin zen Marokoko Sim lurmuturraren parean.
- *Noreña Segundo* (1971n eraikia). Eukaliptoak eta paper-pasta zeramatzala Coruñaeko ipar-mendebaldean hondoratu zen, 1981eko otsailaren 7an. Eskifaia *Black Watch* itsasontziak erreskatatu zuen.



### URALAR SEGUNDO

Urtea: 1973, URALAR SA enpresak  
Luzera osoa: 64 metro  
Zabalera osoa: 11,30 metro  
Potentzia (HP): 2.000  
Erregistroko Tonaje Gordina (ontziaren edukiera): 1.190 tona



1983ko azaroaren 9an, Santanderretik Goolera (Ingalaterra) zihola, Humber ibaian (Hull Roads) hondoratu zen, Anglia itsasontziarekin lainoan talka egin ondoren. Eskifaia onik atera zen, ibaierteraino igeri egin eta gero. Hondoratu eta hilabetera berriro ere flotarazi zuten, New Hollanden (Ingalaterran) desegiteko.

## ALPACA

Urtea: 1978, Donostiako "ORONAVES SA" enpresak; Luzera osoa: 62,62 metro; Zabalera osoa: 10,61 metro; Potentzia (HP): 1.160; Erregistroko Tonaje Gordina (ontziaren edukiera): 697 tona

Baina zamaontzietako batzuek nabigatzen jarraitzen dute munduan zehar, eta non dauden edo dabiltzan badakigu:



Egin zutenetik, sei aldiz aldatu du izenez: 1991n (Auseva), 2001ean (Elpida I), 2004an (Eleni A), 2007an (Iole), 2008an (Rigel) eta 2013an (Semar). Azken izen horrekin utzita zegoen Turkiako Nemrut portu inguruan 2014ko urtarrilean, Moldaviako banderapean.

## URALAR CUARTO

Urtea: 1980, URALAR SA ontzi-enpresak; Luzera osoa: 87,23 metro; Zabalera osoa: 14,01 metro; Potentzia (HP): 2.000; Erregistroko Tonaje Gordina (ontziaren edukiera): 1.372 tona



Beste lau izen ere izan ditu: Maran (1990ean), Kristianne Elisa (1996an), Laguna (1999an), Hande Erenler (2008an) eta Al Zeina (2011n). Lerro hauek idaztean, Libanoko Tripoliko portuan zegoen. 2011. urtetik aurrera Tanzaniako bandera dauka.

Horiez gain, garai haietan egindako beste itsasontzi hauek ere badabilta itsasoan, portuz portu: **Uralar Tercero**, **Uralar Quinto**, **Uralar Séptimo**, **Sota Arritoquieta** eta **Goiri**.

## SOTA BEGOÑA

Urtea: 1980, Naviera Sota Cantábrico enpresak; Luzera osoa: 89,01 metro; Zabalera osoa: 14,41 metro; Potentzia (HP): 2.000; Erregistroko Tonaje Gordina (ontziaren edukiera): 1.574 tona



1983ko azaroaren 9an, Santanderretik Goolera (Ingalaterra) zihola, Humber ibaian (Hull Roads) hondoratu zen, Anglia itsasontziarekin lainoan talka egin ondoren. Eskifaia onik atera zen, ibaiertzearaino igeri egin eta gero. Hondoratu eta hilabetera berriro ere flotarazi zuten, New Hollanden (Ingalaterran) desegiteko.

## Atoiontzia

Mota honetako 29 itsasontzi egin ziren Balenciagan 1976tik 2011ra, lehenbizikoak Compañía de Remolcadores Ibaizabal SA enpresarentzat egindako **Bizkor** (1976) eta **Gogor** (1977) izenekoak. Aurrenekoak Bilboko eta Pasaiko portuetan lan egiteko eraiki zituzten; azkenak, berriz, 2011. urtean egindakoak, itsasontzi handiei eskolta zerbitzua emateko dira eta askoz urrutiago joan dira. Hain zuzen ere, **Alaryam**, **Albuzem 3**, **Hanyurah** eta **Ras Emshaireb** Arabiar Emirerri Batuetako portuetan ari dira lanean. Enpresa batzuek oso gustuko izan dituzte Zumaian egindako atoiontzia; adibidez, Sertosa enpresak 8 atoiontzi egin ditu Balenciagan. 1980an **Sertosa Diecinueve** izan zen lehenengoa eta 2002an segida horren **Sertosa Treintaydos** bukatu zuten.

Atoiontzi gehienak konbentzionalak izan dira, baina ezaugarri bereziak dituztenak ere badaude. Horietakoak dira, adibidez, **R/T Pioneer** (1999) eta **R/T Innovation** (1999), helize azimutalak dituztenak (hau da, helizeak 360°-ko mugimendua dauka ardatz bertikal baten inguruan).

## BIZKOR

Urtea: 1976, "Compañía de Remolcadores Ibaizabal SA" enpresak; Luzera osoa: 26,8 metro; Zabalera osoa: 7,93 metro; Potentzia (HP): 2.030; Erregistroko Tonaje Gordina (ontziaren edukiera): 162 tona

Gaur egun aktibo dago Ferroleko portuan.



**BEDUA**  
**ITURGINTZA S.L**  
ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Kortu Industrigunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

**EGOKI**



Ertoju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



**BEHEKO PLAZA**  
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943861700



**EKAIN**  
SAGARDO EKOLOGIKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033

**ekin**  
EKOLOGIKOA S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943 143 007  
ekin@ekinl.com www.ekinl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet




**ERNIO TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGLA  
SANTILLO AIZUA, 32  
20750 ZUMAIA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
errota@errota-okindeglia.com

**ERTZ INFORMATIKA**

Portatilak  
konpontzeko  
zerbitzu berria



Estatu aurrekontuak  
komunikazio gabe.

**DOAN**

Behoko plaza tel./faxa: 943 143 395

**Galdona**



**burdindegia**

Mendatorraren 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

**GANBARA**

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

**Garoa**  
kafetegia



Txomin Agirre kalea Tel. 943862181

**ZATOZTE**

zatozte.bakallaudenda@gmail.com  
Juan Belmonte 4 beheá 20750 Zumaiá  
TV 943863203

Egin zaitetz  
**BALEIKE**ko  
bazkide




**GOIKO TABERNA**

Erribera, 9 tel. 943 861 391

Egin zaitetz  
**BALEIKE**ko  
bazkide



Ikastegi homologatua

**Golden Gate**  
institute  
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, beheá  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net

## Arrantza ontziak

1964tik 2001era bitartean arrantzan ibiltzeko 60 baino gehiago egin dira Zumaian, mota askotakoak: baxurakoak, arrastekoak, izoztaileak edo atunetarako inguraketa ontziak, besteak beste.

1974ra arte, bakarrik edo bikoteka aritzeko albo arrasteko ontziak nabarmentzen dira,

asko Ondarroarako eginak. Arrastea atzetik egiten dutenak, berriz, geroxeago hasi ziren egiten, 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera. Garai hartakoak dira, halaber, atunetarako lehenengo inguraketa ontziak eta izoztaileak.

Orain dela gutxi uretaratu duten *Playa de Ris* egin arte, Balenciagan 2001. Urtean egin zen azken arrantza ontzia,

baxurakoa, Getariako **Kaximirona** izenekoa. Atunetarako inguraketa arrantzan aritzeko beste bi itsasontzi eraiki dira Balenciagan: **Felipe Ruano** (2012tik *Playa de Noja*) eta **Txori Berri** (1991). Biak lanean ari dira oraindik ere; **Felipe Ruano** ere Bermeoko PEVASA enpresarena da eta **Txoriberrik** Belizeko bandera dauka.

## ONDAR EDER

Urtea: 1974; Luzera osoa: 38 metro; Zabalera osoa: 7 metro; Erregistroko Tonaje Gordina (ontziaren edukiera): 307 tona

1981ean izena aldatu zioten, *Eder Sands*, eta Britainia Handiko banderapean lanean ari da oraindik ere. Maiatzaren erdialdean Orkadako Mainland uhartearen iparraldean zegoen, hego-mendebaldeko norabidean.



## MIYA BERRIA

Urtea: 1990; Luzera osoa: 40 metro  
Zabalera osoa: 9,3 metro; Potentzia (HP): 1.022;  
Erregistroko Tonaje Gordina (ontziaren edukiera): 593 tona

Gaur egun Figaro izena du atze-arrasteko ontzi honek, eta Malvinetako kaladeroetan dabil. Vigoko Freiremar enpresakoa da eta 2014ko maiatzaren erdialdean Montevideoko portutik abiatu berria zen.



## PLAYA DE BAKIO

Urtea: 1991, PEVASA (Bermeo); Luzera osoa: 75 metro; Zabalera osoa: 13 metro; Potentzia (HP): 4.700;  
Erregistroko Tonaje Gordina (ontziaren edukiera): 2.101 tona

Itsasontzi honek badauka bitxikeria bat: bahitu egin zuten piratek Somaliako kostaldetik 460 miliara, arrantzan ari zela. Bahiketa 2008ko apirilaren 20an gertatu zen eta sei egun geroago askatu zuten, 1,2 milioi dolarreko erreskatea ordaindu eta gero.

Askatu eta Espainiako fragata baten eskolta zuela, beste pirata talde bat berriz ere bahitzen saiatu zen.

Eskifaian 26 lagun zeuden, horietatik 5 euskaldunak.

Seguritate-arazoak direla eta, horrelako barkuen segimendua egitea ez da erraza, baina 2014ko apirilaren erdialdean Sierra Leonako kostaldearen parean zegoen.



## Petrolio ontziak

Mota honetakoak gutxi egin dira Zumaian, pare bat baino ez: **Donagus** (1981) eta **Carol** (1983).


**Carol** itsasontziak ere antzeko historia izan du. 1983. urtean egindakoa da (Auxoil SA enpresak eskatuta), eta gaur egun Mauritaniako bandera du. Izena bi aldiz aldatu du, *Taoudeni 2* (2001) eta *Spabunker Siete* (2010).

2013ko maiatzetik Nigeriako Lagoseko portuan dago, aingura botata.

## DONAGUS

Urtea: 1981, Marítima Petrolquímica SA enpresak  
Luzera osoa: 72 metro; Zabalera osoa: 11 metro;  
Erregistroko Tonaje Gordina (ontziaren edukiera): 1.209 tona

Azken 30 urteetan bost aldiz aldatu da izenez: *Siva Star* (1995), *Ecoref 1* (1995), *Fujairah Pearl* (2004), *Mgarr* (2006) eta *Kaiser Sea* (2012). 2014ko maiatzaren erdialdean Luandako portuan zegoen, eta Angolako banderarekin dabil.




# Zumaiako itsasontziak munduan zehar

1. ALPACA (SEMAR)
2. URALAR CUARTO (AL ZEINA)
3. SOTA BEGOÑA (ZIAD JUNIOR)
4. URALAR TERCERO (HALA)
5. URALAR QUINTO (SEA FEYZ)
6. URALAR SEPTIMO (SULINA)
7. SOTA ARRITOQUIETA (ITIDAL)
8. GOIRI (NURAY SENKAYA)
9. BIZKOR
10. ALARYA
11. ALBUZEM 3
12. HANYURAH
13. RAS EMSHAIREB
14. SERTOSA TREINTAYDOS
15. RT/PIONEER
16. RT INNOVATION
17. KAXIMIRONA
18. ONDAR EDER (EDER SANDS)
19. PLAYA DE BAKIO

20. TXORI BERRI
21. DONAGUS (KAISER SEA)
22. CAROL (SPABUNKER SIETE)
23. ADAMS CHALLENGE
24. GRAMPIAN SOVEREIGN
25. GRAMPIAN TALISKER
26. GRAMPIAN SURVEYOR
27. ADAMS AQUANAUT
28. MIDNIGHT ARROW (TOPAZ ARROW)
29. MIYA BERRIA (FIGARO)
30. ADAMS NOMAD (ALLIED ACHIEVER)

2000 km  
2000 mi





Mapa  
interaktiboa.



## Laguntzaileak

1998an hasi ziren Balenciagan honelako itsasontziak egiten eta harrezkero 26 ale egin dituzte, gehienak Aberdeeneko (Eskozia) North Star Shipping konpainiarako. Enpresa horrek eskatuta egin dira *Grampian* izeneko 21 itsasontzi, denak ere funtzio anitzekoak: erreskatea, aingurak edo aparailuak finkatzea, urpekariei edo urpeko robotei laguntza ematea... 2010ean eta 2012an launa barku egin ziren; 2006an eta 2007an, berriz, hiruna.

Egin diren laguntzaile handienak hauek izan dira: *Adams Challenge* (85 m, 2009), *Grampian Sovereign* (83 m, 2013), *Grampian Talisker* (82 m, 2009), *Grampian Surveyor* (75 m, 2002) eta *Adams Aquanaut* (75 m, 2003).

### MIDNIGHT ARROW

Urtea: 1998; Luzera osoa: 60 metro;  
Zabalera osoa: 13,3 metro; Potentzia (HP):  
2.360; Erregistroko Tonaje Gordina (ontziaren  
edukiera): 1.383 tona

Itsas zabalean urpean lanean ari diren  
robotei laguntzekoa da. Lehen laguntzaile  
handia izan zen, eta 56 laguntzako tokia  
du. 2011tik Azerbaijaneko bandera dauka,  
izena ere aldatuta (*Topaz Arrow*). Aurretik,  
*Adams Arrow* ere izan zen, 2005ean.

Itsas zabaleko gas eta petrolio plataformak hornitzeko eta laguntzeko lanak egiten ditu. 2014. urteko maiatzean Kaspian Itsasoan zegoen, Bakuko portutik abiatu berria.



### ADAMS NOMAD

Urtea: 2001; Luzera osoa: 60 metro  
Zabalera osoa: 13 metro; Potentzia (HP):  
2.200; Erregistroko Tonaje Gordina (ontziaren  
edukiera): 1.383 tona

Sakonera txikiko uretan lan egiteko aproposa,  
urpekariei eta itsas azpiko robotei laguntza  
emateko prestatuta dagoelako. 60 lagun  
eramateko tokia du.

Zumaiatik irten eta Mexikoko Golkoan  
lanean egon ondoren, 2010etik *Allied Achiever* izena du eta AME Marine Services enpresarena da. Hau idazterakoan Malaysiako Bintuluko portuan zegoen.



**Gure-Txokoa**  
taberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumala  
Tel.: 943 86 09 70

English School  
**Harvest**

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

[www.academiarharvest.com](http://www.academiarharvest.com)

San Jose, 11 bis  
tel. 943 143 334

API  
**Ibaigain**  
inmobiliaria

Teomin Agirre 4, behea  
elena@ricardoazcue.com  
tel. 615 793 406 / 943 862 651  
fax: 943 862 748

[www.ibaigain.com](http://www.ibaigain.com)

**ilarzi**



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 24 50 20

**INPERUPE  
ELKARTEA**



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

**Iriondo**  
Optika

Kantauri plaza, 8, Zumala. Tel. 943 86 04 86  
Nagusia, 53, Azkoitia. Tel. 943 85 19 84

**IRUITZ**



Illopaingegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMARA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 860 760

**TXALAPARTA**  
OPARIAK

Anglin Sotatu, 2  
20750 ZUMARA  
Gipuzkoa  
tel. 943 943 089  
fax: 943 430 637

**Itzurun, S.L.**  
Aroztegia

Atak, erroak, terrak, arrari enpresak...

Itzurun Zuhazbizidea, 2 behea  
Tel. / Fax: 943 86 16 65

**ORRAZTEGI**  
ZUMAI



943 862 083

**JUARISTI**  
jaketxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua

Betej. auzategia, 10 tel. 943 861 853

**Xaia**

Pintxoak eta otartekoak



Teomin Agirre kalea, 8

**KABI** Parota Etxebarria, 15  
943 117 427



**Kaithermik S.L.**



**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZHrekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

**kalari**



Upela plaza, 8  
tel. 943 862 517

**PAPER** diseinu grafiko

Roberto Gutierrez  
696 211 111 • [rgutierrez@rgutierrez.org](mailto:rgutierrez@rgutierrez.org) • [www.rgutierrez.org](http://www.rgutierrez.org)

**Kresala**  
Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869

## Umezurtza

Izenik gabe jaio zen eta izenik gabe jarraitu zuen gure artean izan zen bitartean. 1990ean lan gutxirekin zebiltzan Balenciagan, eta aurretik horrelako itsasontzi batzuk ondo saldu zituztenez, itsasontzi hau egiten hasi ziren, gero salduko zuten esperantzaz. Uretaratu zuten, karroan lekua behar zelako, baina botadura ez zen izan besteena bezain arranditsua, askoz ere umilagoa izan zen. Gero, Moilari lotuta jarri zutenean, ez zuten prestatu itsasorako, ez zioten zabaldu leihorik kabinan, ez zioten motorrik jarri, ez zuten margotu, eta astilleroetako txaparen soiltasuna eta biluztasuna agerian izan du beti, gorri.

Urte askotan, gure portuko bereizgarrietako bat izan zen, eta batetik bestera ibili ere egin zuten, atzera-aurrera, Moilatik Moilaberrira, Moilaberritik Sarauneko zabalgunera, zegoen lekuan traba egingo balu bezala, inork nahiko ez balu bezala, itsasontzi umezurtza. Izan zen erosteko interesa azaldu zuenik ere, baina jabeak gehiegi eskatzen zuen, nonbait, eta hortxe geratu zen gure itsasontzi gorria, inork nahi ezik. Azkenean, egin zuten lekuaren ondora eraman zuten, eta hantxe desegin zuten barinagatarrek, 2012ko urtarrilean.



## Beste itsasontzi batzuk

Guretik irten eta inoiz bueltatu(ko) ez diren itsasontzietatik aritu gara, baina behin hasita, badaude beste hari batzuk, nahi izanez gero heltzeko. Adibidez, Santiagoko paduran eta Trenzubiaren inguruan, itsasontzi izandakoen hezurdurak daude. Zer itsasontzi ziren? Zergatik utzi zituzten hor, urak eta denborak desegiteko?

Azkenik, astilleroen ondo-ondoan, barinagatarrek itsasontziak desegin izan dituzte urte askotan. Kanpoan egindako itsasontzi ugari etorri dira gurera azken bidaian. Zumaia 1976ko uztaileko argazki batean, Moilaberriari lotuta, *Iraty* ageri da; 1945ean egina zen, Frantzian, arrantzarako ontzia, eta airosoago ageri da 1966an, Coruñan, zuri-beltzeko argazkian... ■



Webgune interesgarri batzuk:

[www.shipspotting.com](http://www.shipspotting.com)

[www.andimar.spanishspotters.com](http://www.andimar.spanishspotters.com)

[www.marinetraffic.com](http://www.marinetraffic.com)

[www.buques.org](http://www.buques.org)

(erreportajeko argazkiak webgune hauetatik hartu dira)

Balenciagaren historia: *Balenciaga S.A. 90 urte ontzigintzan*, Gorka Zabaleta.

(Lortzeko helbidea: [http://www.astillerosbalenciaga.com/index\\_htm\\_files/astilleroak90\\_web2.pdf](http://www.astillerosbalenciaga.com/index_htm_files/astilleroak90_web2.pdf))



**kuttun**  
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



**malaur**

**MAITE**  
ILEAPAINDEGIA



Amiako plaza, 2 tel. 943 143 278



**Maluta**  
jatetxea • taberna

oilasko erreak • kavuelitak • ogitarteboak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**Marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



**Nikol**  
taberna

Amiako plaza 343861816



**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazian)  
20750 - Zumaiá  
Tel.: 943 861 363  
zumaiá@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

636 867 812 (Zumaiá)  
609 834 438 (Itziar-Deba)  
www.carroceriasnoia.com

**MARGARI** Aruta-denak

Tel. : 943 86 19 20  
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutzilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.  
Jose Mari Korta Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 - Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com - e-mail: ostol@ostolaza.com

ETIKONTZA

**OLIDEN**  
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156  
686 911 257  
oliden@olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA  
www.olidenreformas.com

Fabrikak  
Telakak  
Etxetitzak  
(Suhailak, berugelak)  
Industria mantenimendua  
Mota guztietako igelberriak

Oliden arkitek-tura

678 875 652  
943 143 093  
lu@olidenreformas.com

Etxetitzen inspektio teknikoa (ITE)  
Zertifikatu energetikoa  
Fabrikatu diseinua eta abokatuak  
Etxetitzen berrak diseinua  
Mota guztietako proiektuak



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 + Arranaltz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbi@oskarbi.net @ oskarbi.net



**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.  
Jose Mari Korta Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 - Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com - e-mail: ostol@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Julio Seoabe Ibilbidea, 1  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolazabizkaite@net

Tel./Faxa: 943 84 13 25

**OTEZURI**  
KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

# BIZITZA PEDALKADAZ PEDALKADA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

ERREPORTAJEA



Pedalei eraginez, bi gurpilen gainean doa Olaziregi-Iribar familia. Joxe Mari Iribarrek zenbait garaipen lortu zituen 1970eko eta 1980ko hamarkadetan. Haren arreba Arritxu Iribar kazetariak barren-barrenetik ezagutzen du euskal pelotoia. Arritxuren seme Aitor Olaziregik, berriz, aurten eman du salto afizionatu mailara. Aitzakia ona txirrindularitzaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz hitz egiteko.

12 urte zituen Arritxuk anaia Joxe Marik txirrindularitzarako maitasuna kutsatu zionean. Kupidoren fletxa baten efektu berdina izan zuen neska gaztearengan eta maitasun hori ez da denbora honetan zimeldu. “Erabat maitemindu nauen kirola izan da... eta leiala izan naiz ziklismoarekin!”, dio Arritxuk, ohikoa duen irribarrearekin. 27 urte daramatza Euskadi Irratian lanean eta ofizioa eta bi gurpilen gainean egiten den kirolaren sekretu guztiak ezagutuko ditu honezkerok. Aitor Olaziregi seme eta txirrindulariarekin dator. Azken garaian ezin izan du honek karreretan lehiatu, alergija bat dela medio. “Sendagiletan gabilta. Edozein froga egiteko edo edozein farmako hartzeko UCiren [Nazioarteko Txirrindulari Batasunaren gaztelaniazko siglak] baimena behar dugu. Haiek baimendutako alergiologo batekin ari gara orain lanean”, azaldu du esatariak.

Kirolarekin lotura estua duen familiako kideak dira biak. “Etxean amaren aldetik pilota familiakoak izan gara. Aitaren aldetik, berriz, lehengusu bat badugu Athleticeen hasi, Realean segi eta gaur egun Everton taldean (Liverpool, Ingalaterra) atezainen prestatzaile dabilena: Iñaki Bergara Iribar. Saltsa horietan gabilta”, dio Arritxuk.

Joxe Mari Iribar 10 urterekin hasi zen txirrindularitzan. “Korritzen hasteko 11 urte behar zituen, baina halako gogoaz zuten, lizentzia faltsuarekin hasi zen”. 1965ean jaioa, 1975ean

hasi zen lehen lasterketak korritzen eta 80ko hamarkadaren amaieran, soldaduskaren ondoren, utzi zuen pelotoia. Profesionalera salto egiteko zorian egon bazen ere, azkenean ez zen pasa. Afizionatueta bitartean, maila guztietan Gipuzkoako txapelkun izan zen: alebinetan, infantiletan, kadeteetan eta jubeniletan. Kadeteetan Euskadiko txapelkun ere izan zen. Pistan ere txapelketak irabazi zituen eta Espainiako selekzioarako hautatu zuten. “Munduko txapelketa batera joateko zorian izan zen, baina azkeneko entrenamenduan klabikula hautsi zuen. Esprinterra zen eta kilometroko distantzian bazituen marka onak”, du gogoan Arritxuk. Joxe Mari Iribar bizi da gaur egun eta noizbehinka bizikletan ibiltzen bada ere, bi semeen lorpenen bitartez mantentzen du harremana kirol honekin: txikiak maizta erdian Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen alebinetan; zaharra, berriz, bigarren geratu zen Euskadi Torneoan.

Arritxu Iribar: “Bizitzako beste arlo askotarako gauzak erakusten ditu txirrindularitzak: diziplina, norbere burua zaindu eta ezagutzea”

Anaiaren lasterketak ikustera joaten zenean ezagutu zuen Arritxuk pelotoia. 12 urte zituen. 39 urte geroago (gaur egun 51 ditu) asteburuorok joan ohi da txirrindularitza probak ikustera. “Berdin zait alebinak, infantilak edo kadeteak izan. Ez dute profesionalak izan behar; txikiak ere berdin disfrutatu dut”.

Baina zer du Arritxurentzat txirrindularitzak hain erakargarria egiten duena? “Naturarekin harreman zuzena duen



## Marino, Julian, Miguel, Abraham...

Euskal txirrindularitzaren boomaren lekukoa izan da Arritxu hiru hamarkada hauetan. Espainiako Itzuliaren, Tourraren eta Munduko Txapelketaren irabazleak ezagutu ditu. Baina zein ditu gogokoenak?

“Marino Lejarreta eta Julian Gorospe hasieran, oso desberdinak zirelako. Marino bere jarreragatik karreran. Sufritua, ez zen irabazle edo lider peto-pettoa; horrek beti erakarri izan nau. Gorospe jubeniletan ezagutu nuen. Gogoan dut Espainiako txapelketa bat irabazi zuela, jubeniletan, Tolosan. Irabazlea zen, oso irabazlea. Tentea zen, baina oso zaila izan behar du adin horietan hainbeste irabaztea. Garai hartan, Mañarian jendeak jainkoztatzen zuten eta hori dena irenstea eta normaltasunez eramatea oso zaila da. Oso pertsona humanoa zen. Irabazteari utzi zionean, batere arazorik gabe bihurtu zen besteentzako lanerako gizona. Perico Delgadorentzat, Jose Luis Laguiarentzat, Miguel Indurainentzat egin zuten lan. Transformazio hori naturaltasun osoarekin egin zuten. Hori kirolari gutxik dakite egiten.

Miguel Indurain ere ezagutu nuen jubeniletan eta afizionatuetan askoz gehiago jarraitu nuen. Niretzat ezusteko handia izan zen Etorkizuneko Tourra irabazi zuenean. Gero bost Tour irabazi zituen eta horietako bitan lekuko izan nintzen.

Abraham Olano alebinetatik ezagutzen dut, hamaika urte zituenetik. Abraham potoloa zen. Etxean sei anai-arreba ziren eta larre motxean hasitako jendea zen. Baina nola sakrifikatzen zen! Nola prestatzen zen! Berak oso



garbi zuten txirrindularia izan nahi zuela, eta zer transformazio izan zuten bere bizitzan berak nahi zuten hori lortzeko. Hori txapela kentzekoa da. Profesioletara igo, zorte txarra izan eta taldea irten ez. Berritro afizionatuetara jaitsi, jaiki, etsi ez, segi, Bidasoako itzulia irabazi, profesioletara pasa, Ordizian irabazi eta, hala ere, inork ez zuten hartu nahi. Miguel Morenok Festinan hartu zuten eta gero handik bere ibilbidea egin zuten. Abrahamek bere gorpuzkeragatik arazoak zituen maldak igotzeko. Bizikletaren tubularrean beruna sartzen zuten pisuarekin mendian gora saiatzeko. Munduko txapelketa irabazi zuenean Kolonbian, zulatuarekin, negar egin nuen, baita ikusi nuenean Miguel Indurainek zer jarrera izan zuten ere. Bera zen Mundiala irabazteko faborittoa, baina atzean geratu zen Abrahamentzat lan egiten, eta lehena eta bigarren egin zuten. Miguelek Abrahamen garaipen hura ospatu zuten eta gaur lagun-lagunak dira.

Belaunaldiekin jarraituta, Haimar Zubeldia, Markel Irizar, David Etxebarria. Kadete edo jubeniletan ezagutu nuen David eta ziklokroseko Munduko txapelketa batera ere joan ginen bera jubenila zela, Belgikara. Eta orain semearen zuzendaria da. Pentsa bizitzak zer buelta ematen dituen!”

kirola da. Bizitzako beste arlo askotarako gauzak erakusten ditu: diziplina, norbere burua zaindu eta ezagutzea. Balio handiak erakusten ditu taldearen inguruan: errepidean aurkari gogorra izan zaitezke, baina behin karrera amaituta, lagun-lagunak ere bai. Oraindik eusten diegu Joxe Mariren arreba edo kirolzale bezala garai hartan egindako harremani. Ikusten dut hori orain ez dela aldatu”.

Euskal Filologia ikasitakoa, EITBren hastapenetan izan zen Arritxu. “Unibertsitatean azken urtea egiten ari nintzela EITB sortu berria zen eta jendea eskatu zuten irratirako eta telebistarako. Bost aurkeztu ginen eta haietatik hiru geratu ginen. Urte bat geroago zortea izan nuen: oposizioak atera ziren eta plaza lortu nuen. 27. urtea bete dut han”. Joserra Gartziaekin hasi zen goizeko programa bat egiten eta handik

urtebetera ordubeteko programa bat egiteko enkargua jaso zuten. Programazioaren arduradunak ordurako konturatu ziren benetan gogoko zuena kirolak zirela eta bereziki txirrindularitza. “Bazekiten asteburuoro joaten nintzela karreretara eta banuela harremana ziklistekin. Proposatu zidaten ea txirrindularitza jorratuko nuen irratian, eta baiezkoa eman nien. Jakina, nola ez!”. Beste kirol mota batzuk ere jorratu ditu irradi uhinetan (“Realaren entrenamenduetara joatea egokitu zait urteetan. Athleticen eta Realaren partidak eman ditut. Realarekin Stuttgart eta Pragara joan nintzen, eta pilota ere jarraitu dut dezente”), baina txirrindularitza da bere bizitza, eta bi Tour eta Espainiako hiru Itzuliren berri eman du, besteak beste.

Tourra “egunero lekuz aldatzen den herria” bezala ikusten

**La Primavera**  
pizzeria

943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

**RUBIO** Pinturak

PINTURAK,  
ARTE EDERRAK,  
ALFONBRAK,  
DROGERIA,  
PINTATURIKO PAPERAK,  
ESKULANAK...

943 661 335 • 656 779 788  
Erribera 1 behea

**SESMA**  
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206  
www.entrenadorpersonalsesma.com  
josebasesma14@gmail.com

**Talaita**  
taberna-jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**TALAI-PE**  
Jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julio Beobide Ibiltoikia Tel. 943861392

**Tapaia**  
Taberna

Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 661 973

**TTAKUN TABERNA**

Izustari, 3  
tel. 943 865 289

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Tzerri-ukandak (kodilloa)  
Salbitzak, oilaskoak...  
Garagardok dukerak

Ondarza plaza, 4 beheo Tel. 943 573 905

Egin zaitez  
**BALEIKE**  
bazkide

GERAHO BOST  
DESAGERTU  
ALBERTU GUTUZTE

**OKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.okendu.com

**UPELA** PARABOTIKA  
BELARDENDA

- ✓ Sendagai naturalak.
- ✓ Osteopatia eta masajeak.
- ✓ Naturista, dietetika eta elikadura.

Upela plaza, 9  
943 537 911  
upelabelardenda@hotmail.com

**Zalla**  
taberna

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

**ZUMAIA AUTOESKOLA**

E-mail: zumaiaautoeskola@evikalnet.net

BASADI 12  
20750 ZUMAIA  
Tel. 943861018 / fax. 943016126

**Zumaia Hotela**  
Jatetxea  
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 142 441 fax 943 805 161

**EuroTaller**  
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro  
Gerente

Santxo Auzoa, 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 143 143 - Fax 943 865 161  
e-mail: zumaimotor@telefonica.net

**ESKERRIK ASKO**

—

**25 URTE ZUEKIN**

**%25**  
DESCONTUAK

25 urtez gure ondoan zaudelako.

Txomin Agirre 6, 20750  
T 943 143 057  
www.eduoptika.com



du. “Muntaia ikaragarria da. Gauzak asko aldatu dira denborarekin. Garai hartan ez zegoen autobusik, eta bazuen bere abantaila. Orain txirrindulariak ez dira azken unera arte autobusetik jaisten; orduan, aldiz, beste erremediorik ez zuten eta denbora gehiago izaten zen irteeretan eta helmugetan eurekin egoteko. Orain ofizioa zailagoa da, gertutasun hori joan delako. Hala ere, orain iraganera pixka bat bueltatzen ari da”.

Txirrindularitza munduak azken urteetan eraldaketa handia izan duelakoan da. “Baina ez krisialdiagatik bakarrik, baita antolamendua beragatik ere”, argitu du. “World Tourren kontu hau dela eta, oso zaila da talde bat goi mailakoa izatea. Kanonak ordaindu behar dira eta goi mailan egoteko txirrindulariek fitxatu behar izaten dira, puntuak biltzeko. Euskaltelen azken urtean hori gertatu zen. Eta hori dirua da. Azken urteetan, kirol askok, ez txirrindularitzak bakarrik, instituzio publikoen babes ekonomiko jaso dute, eta horretara ohitu gara. Orain, krisi gordin honetan murgildu garenean, jendea gosez eta etxerik gabe badago, lehenetsunak markatu behar dira”.

Txirrindularitzan profesional bihurtzea “oso zaila” dagoela dio Iribarrekin. “Afizionatu mailan pelotoi profesionalean egoteko maila duten gazteak daude, baina goian ez dago tokirik. Atzerrian talde txiki asko ari dira sortzen. Batzuk oso baldintza kaskarretan, hori egia da; zenbaitzuk dirua jarri behar dute bere poltsikotik korritzeagatik. Askok dira kanpoan lehiatzen ari diren euskal txirrindulariak, baita hemen korritzen duten estatuko txirrindulariak ere. Jende asko ez da ohartuko, baina Zumaian korritzen den afizionatu mailako lasterketa estatu mailako onentsuenetakoa da. Zergatik? Afizionatu mailako txirrindulari onenak euskal taldeetan aritzen direlako. Oraindik Euskal Herrian astero karrera bat edo bi izaten dira. Beste lurraldeetan ez da hori gertatzen: Gaztela eta Leonen denboraldi guztian sei proba izan ditzakete, Katalunian antzera eta Aragoen lau. Nola egongo zara urte osoa lau karrerarekin? Asteburuoro korritu behar duzu lasterketa erritmo hori izateko, eta, horregatik, txirrindulari horiek hona etortzen dira lehiatzera”.

### Ingalaterra eta Australia puntan

Espanian ez bezala, mugaz bestalde kirolerako beste kultura bat dagoelakoan dago Arritxu: “Garai batean diru asko sartu izan da. Ingalaterran eta Australian, adibidez, diru asko mugitu da. Pista asko egin dute, emaitza oso onak lortu dituzte eta belaualdi oso bat errepidera pasa da. Egun puntan dabilzan ingeles eta australiar guztiak hor izan diren inbertsioen ondoren sortutako eskoletatik ateratako jendea da. Frantzia eta Belgikan dopinaren burbuila lehertu eta ondoren, denboraldi oso txarrak pasa zituzten, baina orain Frantzia afizionatu mailan dagoen potentziala ikaragarria da. Lan handia egin dute eta orain ari dira fruituak jasotzen”.

### Dopinaren laino beltzak kalte handia egin al dio txirrindularitzari?

(Arritxu): “Nik esango nuke ziklismoa dela kirolik garbiena, kontrolatuena ere badelako. 5.000 kontrol egin eta, iaz bezala, 12 positibo ateratzen badira, ez da erreparatzen 4.988 garbi horietan; 12 horietan bakarrik erreparatzen da.

Beste kiroletan ez dago halako kontrolik”. (Aitor): “Beste kiroletan produktu batzuk har ditzakezu eta txirrindularitzan ez. Ventolin batek positiboa eman dezake kopuruaren arabera. Futboleko ikus dezakezu norbait orkatilan bihurtuta bat izan eta handik astebetara futboleko jokatzeko. Pertsona nor-

Aitor Olaziregi: “Futboleko infiltrazioak izaten dira eta hori txirrindularitzan ezinezkoa da”



### EIDER UNANUE

Puntako txirrindularia da Eider Unanue gazte mailan. Gipuzkoako Itzulia irabazi berri du.

## Zumaiako txirrindularitza: trantsizio garaia

Herriko gazte dezente eramaten zuten Zumaiako Txirrindulari Elkartearen maillot zuri-urdina orain urte gutxi. Aurten, baina, jaitsiera izan dela dio Arritxuk: “aurten kadeterik ez dugu. Alebin eta infantiletan, eskola kirolaren barruan, kirol mota asko egin behar dituzte eta hor, gurasoek kirol hau ez badute ezagutzen, oso zaila da aukeratzea. Batetik, dopinaren mamua dago, eta, bestetik, beldurra ematen die errepidean ibiltzeak. Berez, ziklismoak dituen beste balio horiek ez dira ikusten eta ez dira saltzen. Erreferentziak izanda, errazagoa da.

Emakumezkoen kirolean, Eider Unanueren figura goraitzen du. “Alebinetan hasi zen gurekin, eta egun, juvenil mailan, estatuko onenetakoa da, onena ez esateagatik. Espainiako selekzioan dago pistan eta errepidean. Oraintxe bertan Gipuzkoako itzulia irabazi du eta maila guztietan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi ditu. Bere atzetik beste bi neska ditugu: Eider Manzisidor eta Naia Urbietia”. Neska horiek txirringa gainean ikusteak ezin pozago jartzean dutela onartzen du Arritxuk.

mal bat, bihurtura batekin, astebetara oraindik ezin da ibili ere egin. Infiltrazioak izaten dira eta hori txirringularitzan ezinezkoa da”. **(Arritxu):** “Txirringularitzan jubenil mailan hasten dira kontrolak. Lizentzia sinatzen duzunean, ondorio guztiekin da. Hori oso garbi jartzen du eta nahi dutenean zure bila etor daitezke, etxera edo karrera batera. Aitorren karrera batean, Laukizen, dopinaren aurkako kontrola izan zen; Bidasoako Itzuliko etapa batean ere bai. Orain, gainera, Eusko Jaurlaritzatik datoz eta ez dute abisatzen”.

Aurten egin du 1995an jaiotako Aitor Olaziregik salto afizionatu mailako txirringularitzara. Viveros San Anton-Zumaiako Txirringulari Elkartearen aritua Hyundai-Caja Rural-Niessen taldeko elastikoa darama aurten. “Txikitari beti joaten nintzen amarekin Ander Eizagirre eta Iban Iriondoren lasterketak ikustera. Buruan sartu zitzaidan karrerako bizikleta bat probatu nahi nuela. Eskuleku horiek beti tentatu izan nauten”. 11 urterekin hasi zen alebin mailan, eta infantil, kadete eta jubenil mailetan korritu ondoren, otsailaren 22an egin zuen debuta etxean, VI. Zumaia Sarian. **(Aitor):** “Sentsazio onekin bukatu nuen. Banekien esprintean ez nuela aukerarik, ez naiz eta azkarra. Baina probatu beharra neukan”. **(Arritxu):** “Bazuen arantza bat. Iaz, jubeniletako azken karrera Zumaiaren tokatu zen, Udazkeneko kriteriumean. Bezperan, beste birekin ihesi zihola, helmugarako hiru kilometroren faltan, azken mendatean, erori eta kristoren kolpea hartu zuen. Zumaiako karrera mimo handiarekin prestatu zuen azken bi hilabeteetan eta ezin izan zuen korritu”. **(Aitor):** “Iaz, jubeniletan, aurrean nabilen eta ilusioa egiten zidan etxean korritzeak. Beti beste herri batzuetan zabilta, hemen inguruan ez delako karrera askorik izaten. Pena izan zen. Zartada hartuta ere irten nahi nuen, baina...”.

Maila berrian bere buruarekiko exigentzia handiagoa duela azpimarratu du gazteak. “Buruari gogor egin behar diozu. Pixka bat beldurtzen bazara, segituan joaten zara atzera eta postuak azkar galtzen dituzu. Askoz gogorragoa da atzean joanda; indar gehiago galtzen duzu horrela”.

Beste kiroletan bezala, ia urtebeteko esfortzua eskatzen du txirringularitzak. Irailean amaitzen dute denboraldia, urria dute atsedean hartzeko eta azaroan berriro lanean hasten dira, pistan, Donostiako belodromoan. “Neguan lasterketatik egoten ez denez, pistan ibiltzeak karrerarako erritimoa hartzen

laguntzen du. Muskuluak berriro indartzen dira. Orain arte oso gustura ibili naiz eta emaitza onak eman dizkit. Neguan pista eginda nahiko ondo heldu naiz errepide-ra. Urtarrila edo otsaila ondoren beti errepidean zaude eta zerbait desberdina egitea eskertzen da psikologikoki. Errepidean orduak eta orduak ibiltzeak psikologiko asko jipoitzen zaitu”, dio Aitorrek.

Errodoarea, ordekan gustura aritzen den txirringularia da. Erloju kontrako bakarkako karreretan ere ondo moldatzen dela dio eta azkenaldian hobekuntza izan du mendian ere. Baina, alergia arazoak direla medio, karreretatik urrun izan da azkenaldian. “Karrerak korritu ahala, gero eta hobeto ari nintzen sentitzen. Aldapan gora hobeto ari nintzen sentitzen, gustura, baina orain alergiaren arazoarekin zaplateko handi xamarra jaso dut. Gorputza nekatuta sentitzen nuen. Entrenatzera atera eta 20-30 kilometro egiteko ez nintzen kapaza. Gorputza bakarrik ez, psikologikoki ere asko jaten duzu burua. Karrera batera joan eta ez nintzen gai ezertarako. Sentsazio hori ez zen txarra bizikletan bakarrik, baita etxean ere. Bizitza normalean ere nekatuta sentitzen nintzen”, dio Aitorrek hasperen eginaz.

19 urte beteko ditu Aitorrek urteko azken egunean. Profesional mailako txirringularitza probatzeko ametsa du. “Goiko mundu hori probatu nahiko nuke. Horretarako ari naiz lanean, baina oso zaila dago. Agian goian denontzat lekurik ez dagoelako edo, afizionatuen mailan maila oso handia dago. Beste lurraldeetan 23 urtetik gorako jendea [afizionatu mailako] taldeetan mantentzen dira, baina hemen, Hego Euskal Herrian, 23 urtera heltzean ez bazara profesioaletara igotzen, taldea utzi behar duzu. Gazteak bultzatzeko filosofia dago, baina horrek mugatu egiten zaitu. Ikasten ari bazara, 22 urterekin unibertsitatea amaitzen duzunean, urtebete bakarrik daukazu txirringularitzan aritzeko eta saltoa ematea oso zaila bihurtzen da”. ■

Aitor Olaziregi: “Goiko mundu hori probatu nahiko nuke. Horretarako ari naiz lanean, baina oso zaila dago”



**zerbitzua euskaraz  
eman nahi dizugu**

**lagundu hobetzen**



Eskaini 5 minutu galdetgia  
erantzuteari eta parte hartu  
produktu kulturalak erosteko  
50na euroko 3 bonoren zozketan



**bete hemen  
galdetgia**

**eskerrik asko!**



Gipuzkoako Foru Aldundia

*Gipuzkoa*  
BERRIA

# Ikusi, sentitu eta bizi nola irabazten dion eguzkiak gauari

Ekainak 23  
22:00 Sanjuaniturrin,  
San Juan sua eta dantza

Jarraian, Eki Jaia



Zumalako Udala



## Merkataritzaren astea

Ekainaren 1etik 21era  
35 e-rekin 50 e-ko txartela erosi



### Ekainak 14, larunbata

BRADERIE: Dendak kalera aterako dira egun guztian zehar. Zumartian sari-txartelak gasta itzazu.

TXAPA TAILERRA: 11:00etatik 14:00etara Erribera kalean.

HOZKAILUETARAKO  
IRUDI IMANDUNA TAILERRA:  
17:00etatik 20:00etara Erribera kalean.

TIBETAR ZUBIEN ZIRKUITUA ETA  
TIROLINA:  
11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik  
21:00etara Amalako plazan.

PUZGARRIAK:  
11:00etatik 14:00etara eta  
17:00etatik 20:00etara  
Kantauri plazan.

LARUNBATA  
**14** %5eko  
DESKONTUA



Zumaia txartelarekin  
erosketan guztiztan.

# EKAINA

## DEIALDIAK

### Maiatzak 30 – Ekainak 8

Geoparkearen Astea

### Ekainak 9-15 Merkataritza Astea

### Ekainak 13-15 ALAIKO

JAIK (ikusi programa)

### Ekainak 16-22 Slow Zumaia

### 28tik aurrera

SANPEDROAK (ikusi programa)

### ZUMAIKOA XXVI. ARGAZKI

LEHIAKETA: txuri beltzekoa, gaia "Zubiak". Aurkezteko

epea: **uztailaren 4a**. Info+

Alondegia kultur etxean

943861056, kultura@

zumaikoudala.net

## ERAKUSKETAK

### OXFORD aretoan

Maiatzak 30 - ekainak 22:

MANU MUNIATEGI:

"Badoa badator"

Ekainak 25-30 Inpernupe

bigarren eskuko AZOKA

Uztailak 4-20 AITOR

## ETXEBERRIA

### EKAINA

#### 1, igandea

12:00 Aita Marin, Kids & Us antzerkia ingelesez

#### 4, asteazkena

Torreberriin, Kukai dantza taldearekin entsegu irekiak

18:30 Euskal dantza ikasle

gaztetxoentzat

20:00 Entsegu irekia

#### 5, osteguna

18:30 Aita Marin, Musika

Tailerreko entzunaldia

22:00 Aita Marin, zine forum:

Alabama Monroe (J.B.A.)

#### 6, ostirala

19:00 Komentuan, kontzertu lirikoak

#### 7, larunbata

08:00 Udaberriko Argazki

Rallya. Informazioa Algorri

Interpretazio Zentroan

(943143100)

20:00 Itzurun tabernan,

kontzertua: David Ruiz

21:30 Beheko Plaza

jatetxean afaria eta jarraian

bakarrizketa: Jon Plazaola

#### 10, asteartea

18:00 Alondegiko I. solairuan,

Kirmen Uribe, irakurle

taldearekin Mussche nobela

aztertze

18:30 Aita Marin, Musika

Eskolako antzerki ikasturteko

saioa

#### 11, asteazkena

18:00 Aita Marin, San Telmo

literatur lehiaketako sari

banaketa

#### 12, osteguna

18:30 Aita Marin, Nagusien

Astearen barne, antzerkia:

Manos arriba, esto es un

atraco!, Donostiako Erdialde

taldearen eskutik

#### 13, ostirala

22:30 Aita Marin, kontzertua:

Joseba Tapia, Baleikeren 20.

urteurrenaren aitzakian

#### 15, igandea

11:45 Nagusien Astearen

barne, 89 urte beteko

dituzten guztiertzako

omenaldia

#### 17, asteartea

18:30 Aita Marin, Musika

Eskolako entzunaldia

#### 19, osteguna

18:30 Maria eta Josen, Musika

Eskolako kurtso bukaerako

jaialdia

22:00 Aita Marin, zine forum:

De tal padre, tal hijo

#### 20, ostirala

19:00 Algorri Interpretazio

zentroan, Fracking-aren

inguruko hitzaldia

23:00 Ganbara tabernan

bakarrizketa: El Peli

#### 21, larunbata

18:00 Herri Eskolako frontoian,

haur festa: Irrien Lagunak,

Baleikeren eta Hitzaren

urteurrenaren aitzakian

#### 22, igandea

Egun osoan zehar Artisanu

Azoka

12:30 Arrauna: Beteranoen

estropadak

#### 23, astelehena

22:00 Sanjuaniturriin, San Juan

sua eta dantza saioa

Jarraian, Eki Jaia

#### 27, ostirala

18:30 Odietan, XVI. Pilota

txapelketa herrikoaren

finalak

22:30 Aita Marin, kontzertua:

Mursego, Baleikeren 20.

urteurrenaren aitzakian

#### 28, larunbata

18:30 Odietan, I. Pilota

txapelketa herrikoia palaz

#### 29, igandea

11:00 Altxorraren bila jolasa,

Algorri Interpretazio

zentroko hileroko doako

ekintza (943143100)

#### Uztailak 5, larunbata

BALEIKEK 20 URTE, egun

osoko egitarau zabala

# ERROTA



# OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta  
eta pastelak*

## LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60



# Magnolia

Doinua: "Trumoa ortzi beltzean hoska"

1.

**P**resoen aldeko ekintzak mila  
ETAk hil zuen guardia zibila  
Emakume bat tratu txarrekin  
bikotekideak hila. (bis)  
Magnolioan biltzen direnak  
erantzunen baten bila  
zuhaitza dago isila  
bere baitara pentsatuko du  
azkena izan dadila. (bis)

2.

**E**rriberako lekuko zaharrak  
biziak garai onak ta txarrak  
sendo dirudi baina joaten  
ari zaizkio indarrak. (bis)  
Gizarte baten aldarrikapen  
eskaera ta beharrak  
pankarta eta marmarrak  
guzti horien zama astunak  
hautsi al dizkio adarrak? (bis)

3.

**S**oilik aldarri gune ez dala  
eguneroko martxa normala  
txikiteroak eta turistak  
hortik ibiltzen dirala (bis)  
Edo kaleko hainbat saltzaile  
azoka balitz bezala  
ze zuhaitz eskuzabala.  
Magnolioak horiei ere  
egiten die itzala. (bis)

4.

**O**taño bere onbuarekin  
Iparragirre Gernikarekin  
Hemen zuhaitzak lotzen ditugu  
sarri herriminarekin. (bis)  
Herri honetan errespetuaz  
bizitzen behar dugu jakin.  
Ez soilik zuhaitzarekin.  
Baita ere haren azpikaldetik  
pasatzen diren denekin. (bis)





Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



# Casa BASUSTA



**CASA  
BASUSTA**  
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
ZeramiKa-lanak eta zumezko saskiak



**Etxez etxeko zerbitzua**

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 882611



**PHILIPS**

40PFL4468

- 40"
- 200 Hz
- 3D
- Smart - wifi-a barne



**PANASONIC**

TX42ASE650

- 42"
- 1.200 Hz
- 3D
- Smart - wifi-a barne

# TELEBISTEN MUNDIALA

Ordaindu 12 hilabetean interesik gabe!



**SAMSUNG**

H6400

- 400 Hz
- 3D
- Smart - wifi-a barne



**LG**

50PB650

- Plasma
- 600 Hz
- 50"



**ENDAÑETA ZUMAIA  
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694  
www.endanetazumaia.com